

# FUNTSEZKO ELKARTEAK



Planbide enpresa; hitzaldiak eta premium edukiaz gain, beste diru-sarrera bat ere badu: enpresekin sinatutako akordioak. Akordio hauen helburua; gure enpresaren eta akordioa sinatu dugun enpresaren ongizatea bermatzea, eta aldi berean, diru-sarrerak handitzea da. Akordioa baliozkoa izateko, bi enpresak ados egon behar dute adostutako baldintzekin, eta ondoren, akordioa sinatuko da.

Akordio horietan zehazten da Planbide enpresak beste enpresak publizitatuko dituela aplikazioaren barruan, eta enpresa horiek publizitate hori egiteagatik Planbideri ordainduko diotela. Aplikazioaren barruan atal bat egongo da, eta bertan, enpresa horien informazioa eta jarduerak azalduko dira, gure bezeroak nahi izanez gero, haien zerbitzuak eskuratzeko.



Enpresa horiek, hileroko kuota bat ordainduko diote Planbide enpresari publizitate zerbitzuagatik. Diru hori zuzenean enpresa horien banku-kontutik kenduko da, eta Planbideren banku-korrontean sartuko da.

Akordioa egitean, bi enpresek akordioaren epea zenbat denborakoa jarri nahi duten erabakiko dute. Epe hori luzea edo laburra izan daiteke. Epe laburra urtebete baino gutxiago izango da, eta epe luzea berriz, urte batzuk iraungo du. Epea bukatzean, bi enpresek adostuko dute akordioa berritu nahi duten ala ez. Akordioa berritzen bada, prozesua guztia berriz hasiko da; eta berritzen ez bada, bertan behera geldituko da.

Adostutako epearen barruan enpresa batek akordioa hautsi nahi badu, arrazoirik gabe, diru kantitate bat ordaindu beharko dio beste enpresari eragindako kalteengatik. Akordio horren haustura, beste enpresarekin izandako arazo bat izan bada, arazoa konpontzeko negoziatu egin beharko akordioarekin jarraitzeko. Hala ere, arazoa konpontzen lortzen ez badute, epaiketa bat egongo da, eta bertan epailea erabakiko du zein irtenbidea emango den.